



IRAGARKIA

Tolosako Udaleko Kirol saileko dirulaguntzen Ordenantza Espezifikoetako oinarriak aldatu aurreko kontsulta publikoa bideratzeko. Aldaketak eranskin hauetan:

1. Eranskina, “Tolosako kirol elkarte eta taldeen egiturazko garapenerako dirulaguntza arruntak emateko oinarri arautzaileak.”

2. Eranskina, “Eskola Kirolaren kudeaketarako eta arretarako egitura espezifikoak sortu eta garatzeko, ikastetxeei edo guraso elkarteei dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak.”

3. Eranskina, “Kirol-jarduera bereziak antolatzeko dirulaguntzak”.

4. Eranskina, “Tolosako ikastetxeen igeriketa kanpainarako dirulaguntzak”.

AURREKARIAK

Administrazio Publikoen Prozedura Erkideari buruzko Urriaren 1eko 39/2015 Legeak bere 133. artikuluan xedatutakoaren harira, aurretiazko kontsulta publiko hau deitzen da, interesdunek parte har dezaten kiroletako Ordenantzaren lau eranskinen eguneratzean, kontsultaren helburu nagusia izanik herritarren partehartzea handitzea arauak prestatzeko prozeduran.

Aurretiko Kontsulta Publikoko Tramitea:

Sortzea:

Kiroletako Ordenantzan espezifikoaren 1. 2. 3. eta 4. eranskinetan oinarriak eguneratzea, indarrean dagoen 1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako legeri egokitzuz, irizpide eta haztapenean batzuk ere aldatuz.

ZIOEN AZALPENA

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikulua ezartzen duenez, nahitaez eduki behar da dirulaguntzen plan estrategiko bat, eta bertan identifikatu behar dira, sailen dirulaguntzei dagokienez, dirulaguntzen aplikazioaren bidez lortu nahi diren helburu eta ondorioak, besteak beste.



Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean ezarritakoa betetzeko, Tolosako Udalak 2022ko abenduaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, 2023-2025 epealdirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zen. Plan hori sailaren politika planifikatzeko tresna da, eta bere helburua da erabilera publikoa edo gizarte-interesa duen jarduera bat sustatu edo xede publiko bat lortzeko bultzada ematea, dirulaguntzen bidez.

Kirolaren azpisailari honako egiteko eta jardun-arlo hauek dagozkie, besteak beste:

- Tolosako kirol elkarte eta taldeen egiturak eta hauen ohiko jarduna eta kirol jardueren antolaketa diruz laguntzea.
- Tolosako Ikastetxeek edo Guraso elkarteek, Eskola kirolaren kudeaketarako egitura espezifikoak sortu eta garatzeko programak eta jarduerak diruz laguntzea.
- Kirol jarduera bereziak antolatzeko dirulaguntzak ematea.
- Tolosako ikasleen igeriketa kanpaina diruz laguntzea.

2017-2027 Tolosatzen, Tolosako Plangintza partekatuaren ildo estrategikoen artean, Tolosa osasunez bizitzeko herria irudikatu zen non aktibitate fisioa izango den bizi ohitura osasungarriak sustatzeko bideetako bat. Halaber partaidetzazko kirolaren eredu kompetitiboa ez ezik, kirol eredu kooperatiboa aldarrikatzen den, naturari ere begiratzen dion kirolari, nolana hiko "minoría" izateak oztoporik eragingo ez duen kirol eta jarduera fisikoa praktikatzeko.

Testu inguru honetan, Kirol elkarteek gizarteari egiten dioten ekarpenari esker, kirola osasun balore bihurtzeaz gain, beste hainbat baloreen sustatzaile ere badira (partehartzea anitza bultzatzen dute, kirol kultura ezagutza, hizkuntzaren bultzada...) Klubak kirolaren hastapena eta errendimendu ibilbidea dute helburu nagusia; baina baita ere, kirol ikuskizun anitzak antolatuz herriaren aldeko erakargarritasuna areagotzen dute, herritarron arteko kohesioan eragin zuzena dutelarik.

Halaber ikastetxeek partehartzea anitza bultzatzen dute, inolako bereizkeriarik gabe, ikasleen talentuak garatu, gaitasunak hobetu eta esperientzi zabala eskaintzea helburu dutelarik. Batzuk eta besteak aitortuz Kirol eta jarduera fisikoak eremu ezin hobea dela gaztetxoek osasuntsu hazteko, harremanak egiten ikasteko, heziketa izateko, kirol kultura ezagutzeko, euskara ikasteko eta hainbat balio eskuratzeko.

Klubak, Eskola Kiroleko egiturak eta kirol eragileek orokorrean, eraldatze bidean murgilduta daude etenik gabe. Hauen konplizitatea zirikatzea ezinbestekoa da Tolosarrontzak asmestu eta helburutzak hartu diren erronkak lortzeko.



OINARRIAK ALDATZEKO BEHARREZKOTASUNA ETA EGOKITASUNA

Tolosako udaleko eta bere Entitate Publikoen dirulaguntzak Udal Ordenantza Okorrak arautzen ditu. Ordenantza Orokorra eguneratzeak Udaleko sail ezberdinen Ordenantza Espezifikoen aldaketak egitea dakar. Bestetik irizpide eta baremazioak egungo errealitatera egokitzeko komenigarria ikusi da.

XEDEA

Oinarri hauen xedea hauxe da:

1.- Irabazi asmorik gabeko kirol taldeek eta klubek dirulaguntzak eskatzeko duten aukera arautzea eta laguntza horien kontzesioa, haien egiturak indartu, garatu eta jarduerak antolatzeko.

Elkartek segurtasun eta konfidantzazko eremu bat eskaintzen du, kirol eskoletan hasita, nork bere zaletasuna aurki dezan berezko talentua hauspotzeko, izan kirol errendimendura bideratuz, izan bizi ohitura atsegin eta mesedegarria bihurtuz kirol praktika.

Gizarteak eskatzen dituen erronka berrie erantzunez, klubak integrazioa indargune duelarik, bere helburuak gizarteak oro har dituenekin lerrokatzen ditu, kirolaren kontzeptu tradizionala zabalduz eta zenbait balio aintzat hartuz, hala nola kudeaketaren bikaintasuna eta jasangarritasun ekonomikoa, kirolarien prestakuntza egokia eta eraginkorra, genero berdintasuna, aniztasun funtzionala dute pertsonen gizarteratzea eta justizia soziala.

2. Tolosako ikastetxeek edo Guraso elkarteek dirulaguntzak eskuratzeko duten aukera arautzea eta laguntza horien kontzesioa, eskola kiroleko kudaketa eta arreta hobetzeko izaera egonkorra izango duten egitura espezifikoak garatzeko izango da.

Zehazki, ume eta gazteen heziketan lagungarriak diren kurrikuluaz/eskolaz kanpoko programak sustatzeko borondatea dago, hain zuzen ere, ume eta gazteen garapen fisikoa, afektibo eta soziala helburu duten eta balioak sustatzen dituzten ekintzak.

3. klubei eta kirol-elkarteei, zein irabazi asmorik gabeko beste elkarte batzuei kirol-jarduerak (kirol-ikuskizunak, ez ohiko kirol-lehiaketa, aisialdiko kirol jarduera bereziak, kluburteurrenak, igoera faseak...) antolatzeko dirulaguntzak eskatzeko aukera arautzea da eta dirulaguntza horien kontzesioa, beti ere, jarduera horiek Tolosa



udalerrian antolatzen baldin badira eta interesgarriztat jotzen baldin baditu Tolosako Udaleko Kirol Departamentuak.

4.Tolosako lehen hezkuntzako ikastetxeek urtero egiten duten igeriketa kanpainarako dirulaguntzak eskatzeko eta emateko, norgehiagokarik gabeko erregimenean.

Igeriketa ikastaroak lehen hezkuntzako 1. 2. eta 3. mailako ikasleei zuzenduta daude eta izen-ematea ikastetxeak formalizatuko du.

Desgaitasuna duten ikasleek dirulaguntza jaso ahal izango dute kanpainako ikastaroez gozatzeko, baldin eta ikastetxeari lotuta jarraitzen badute.

Oinarri hauen bidez emango diren laguntzak helburu beragatik jasotako beste edozein laguntza edo errekurtsioekin bateragarriak izango dira, beti ere, jardueraren kostua gainditzen ez bada.

ESPOISIZIO PUBLIKOA

Behar bezala identifikatutako herritar, erakunde eta elkarteek parte hartu ahal izango dute eta ekarpenak egin, bi bide hauetako edozein erabilita:

- Udalaren erregistroan aurkeztuta, aurrez aurre (Plaza Zaharra 6-A, Tolosa) zein telematikoki (www.tolosa.eus).
- Helbide elektronikoa honetara bidalita (kirolak@tolosa.eus)

Horretarako 15 lanegun izango dituzte, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

OHARRA: Proposamenari hasierako onespena emango zaionean, Udal honetako Ohiko Osoko Bilkuran, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta ekarpenak eta alegazioak aurkezteko aukera irekiko zaie interesdunei.

IZAN LITEZKEEN BESTELAKO AUKERA ERREGULATZAILE ETA EZ ERREGULATZAILEAK

Uste da, lau eranskinetan proposatu diren aldaketak batetik, 1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako legera egokitzen direla, eta bestetik egungo errealitateara hobeki egokitzeko irtenbide bakarra direla, beraz Kiroletako Ordenantzan, lau eranskin horietan aldaketak egitea bidezkoak dela.



TOLOSAKO
UDALA

2023IORD0001

Tolosan, 2023ko urtarrilaren 20an

Arantza Estanga Lasa
Kiroletako Zerbitzburua

•